

«EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ»
(HAMABOST URTE LANEAN)
1979 - 1974

EGOERAREN AZTERKETA

EHE: Hamabost urte euskararen aldeko burrukan.

«Euskal Herriak, hizkuntza nazionalari dagokionez, azken aldian daraman esperientzia negargarria da. Honela, euskara heriotzera doakigu. Euskaldunok orain dela bi urte demokrazian eta indar abertzaleengan ipinitako itxaropena, diglosia gordinean amaitu da. Orain abertzale ez direnak ez ezik, alderdi abertzaleek ere, neurri handi batetan euskara zokoratu dute. Gure alderdi etxekoetan, edo abertzaleetan, euskarak ez du aurkitzen benetako defentsarik (...).»

Hamabost urte pasa dira 1979.eko azaroaren 4an EHE taldearen sorrera era honetan arrazoitzen zuen agiria gure taldeak plazaratu zuenetik, eta ez da txikia izan urte hauetan gure taldeak euskararen munduan eta normalkuntza prozesuan izan duen eragina, EHEren sorreran aipatzen genituen arrazoiek bizirik dirauten arren:

HIZKUNTZ BURRUKAREN ILDOAN

EHEren sorrerak, ordurarte nagusiki irakaskuntzara mugatu zen euskararen aldeko dinamika herritarrari **perspektiba be-**

rriak zabaldu zizkion, urteetan ikastolek eta AEEK eginiko lana freskotasan berriaz indartuz.

Jakin, badakigu, euskarak izan duen sostengu bakarra familia bidezko transmisioa izan dela eta euskararen iraupena gurasoengandik seme-alabenganako transmisioari zor zaiola. Izan ere, haurzatndegiak, ikastolak, eskolak eta gainontzeko euskaratze-bideak hedatu arte, hori izan da belaunaldi gazteek euskara ikasteko eduki duten bide bakarra. Egun, euskararen transmisioa, herriak sortu dituen bide guzti horietarik gertatzen da. Euskara biztiko bada bide horiek sendotu eta zabaldu egin behar ditugu. Bide berri horiei esker, euskararen irakaskuntza eta eza-gupidearen dinamika bat sortu eta sendotu baita gure herrian.

Baina gauza bat da jakitea, eta beste bat eguneroko bizitzan (etxean, lagun artean, dendetan, leku publikoetan, lantokietan, irrati-telebistan...) erabiltzea. Jende askok, nahiz euskaraz jakin, ez du erabiltzen ingurua erdalduna delako eta ohiturarik ez duelako. Eguneroko gertaera dugu zoritxarrez, ikastoletako gazteek, euskara jakin badakite, baina ezin dira bizi euskaldun, euskara erabiltzeko girorik ez baintute, ez etxean, ez kalean, ez jolas-lekuetan,...

EHEren sorrerarekin, euskararen aldeko **dinamika herritarra orokortu, ideologizatu eta esparru berrietara zabaldu** egiten da eta, batez ere, kaleratu egiten mobilizazio, aldarrikapen eta salaketa dinamikaren bidez.

«Abertzaletasuna hemen, benetako eduki eta kontenidoz hustuaz doa: Euskal Herria vaskoen herri den Euzkadi deuseuskaldun bat bihurtzen delarik. (...). Hori guztia dela eta, amnistaiaren alde eta beste borroka politikoaren alde sortu diren gestora delakoen antzera, euskararen aldeko 'talde eragileak' sortu behar direla pentsatzen dugu, euskara espezifikoki diglosiatik eta heriotzatik salbatzeko (...) Talde horien izena EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ izango da».

Hala ere, EHEk beti garbi izan du euskararen arazoa arazo politikoa (ikus 1986.eko **Hizkuntza. Bortxa eta Askatasuna** txostena) izan arren, EHEk ez zuela alderdi bilakatu behar. Era

horretan aipagarria da 1986.ean, Euskararen Normalizaziorako Erakunde Politikoa (ENEP) sortzea proposatu zenean EHE taldeak eman zuen ezetza.

Normalkuntzaren helburutzat elebitasunaren eta ezagutzaren ordeztu, **elebakartasun soziala** eta **euskararen erabilera** plazaratu zituen. Aipagarria eta argigarria da 1986.ean UEUn EHEk aurkezturiko *«Elebitasuna eta ideologia»* izena duen txostena.

*«Ezagutzen ez den hizkuntza erabiltzea ezinezkoa da. Halaber, erabiltzen ez den hizkuntza hiltzen da, bizirik iraunarazteko hiztunik ez duelako. Izan ere, euskara ez jakin ala jakin eta ez erabiltzeak ondorio berbera dakar: euskararen heriotzea. Erabiltzen ez den hizkuntza ezin da luzaro bizi. Horregatik, hau da gure lehen helburua: **EUSKARAREN ERABILPENAREN DINAMIKA BAT SORTZEA**. Euskara erabiltzeko ohitura sortu eta aukera eman, euskara dakien jendea euskaraz hitzegiten jar dadin, hots, **ezagupen indibidualaren dinamikatik abiatuz, dakienak erabili besteei erabilarazteko, horrela giroa aldatuz, erabilpen sozialaren dinamika sortu».***

Hasieratik beraz, hizkuntz burrukaren kanpoa zabaldu zuen EHEren sorrerak eta iharduerak. Errotulazioa eta administrazioa hasieran, 1979/1980; Euskal Teleibista eta irratiak 1981/1982; alderdiak, sindikatuak eta kultur gintza 1983/1984; Prentsa idatzia eta Publizitate mundua 1989.ean;

HIZKUNTZ PLANGINTZAREN TEORIZAZIOAN

Honela dio 1981.ean EHEk **«Euskara normalizapen bideetan»** izeneko agirian:

*«Euskararen etorkizuna ezin bait liteke utzi borondate onaren mende, bihozkada eta gutxi batzuen sakrifizioaren esku. **Era razional eta zientifikoz antolatu beharra dago, espontaneitate hutsean gera ez dadin.***

Gure ustez, eta sarritan adierazi dugun bezala, **euskararen plangintza litzateke erabilpenaren dinamika hori sortzeko tresna, hau da ekintza-programa argi eta zentzuzkoa.**

Plangintza hau burutu ahal izateko ordea, beharrezkoak diren elementuak, programakuntzaren oinarriak, alegia, ezinbestekoak dira. Hala nola:

- 1.- **Errealitatea**, egungo egoera konkretua ongi ezagutzea: **non gauden jakiteko**.
- 2.- **Helburuak markatzea**, berehalako, epe motzerako, epe luzearako: **nora iritsi nahi den**.
- 3.- **Bitartekoak** izendatzea edo eta helburu horiek lortzeko egin behar dena erabakitzea: **zein bide hartu behar diren**.
- 4.- Egin beharreko diren gauzetan **lehentasunak** edo prioritateak erabakitzea: **lehentasunak**.
- 5.- **Zein errekurtso eta baliabide** beharko diren ekintza horiek aurrera eramateko **ekonomia** aldetik, **persona** aldetik, **erakunde** aldetik.
- 6.- Lortutako erresultadoen **kontrola**. Jarritako epeak bete diren ala ez aztertzea.

Hauek dira plangintza osoaren elementuak eta hauek dira, baita ere, plangintza osatzen duten arlo edo esparru bakoitzean kontutan hartu behar direnak. **Ekintza kanpainak programatu behar dira arlo bakoitzean, kanpaina arteko koordinakuntza lortu eta arlo linguistikoaren arteko ekintzak artikulatu. Ekintza guzti horiek bilduko lituzke plangintzak.**

Bestalde, dinamika hori sortuko duen plangintza horretan **kontutan izan behar dira, hizkuntza egoera ezberdinetako lurralde edo area linguistiko guztiak**, hala, erabat erdaldunduak aurkitzen direnak, area hiritartuak edo bereziak, eta, euskaldunak. **Es-kualde bakoitzean zer egin erabakitzeke bakoitzari dagokion tratamendu egokiena emateko. Beraz, prozesu bakar baten dinamika ezberdinak.**

Bestalde, 1982.ean Lluís Arazil ekarri zuen Euskal Herrira EHE taldeak, eta soziolinguista honen «hizkuntz gatazkaren» funtsezko ekarpena herritartzeko txosten bat plazaratu eta hitzaldi plangintza burutzen du herri askotan. Garai berean lantzen dira EHEN Siadecoren lanak, Iñaki Larrañagaren laguntzaz eta bideratzen dira lehen erabileraren neurketak. Lan handi

horren emaitza da **«Eztabaidarako materialeak»** izena duen txostena. Bertan, beste inon ez bezala azaltzen da EHEk hizkuntz burrukari buruz egiten duen azterketa eta irakurketa, eta baita EHEk proposatzen dituen irtenbideak ulertzeko oinarri politiko eta soziolinguistikoak:

- 1.- **Arazo linguistikoa/arazo politikoa**
- 2.- **Euskararen ordezkapena**
- 3.- **Elebitasuna/hizkuntz burruka**

ERAKUNDE ANTOLAKETA EREDUAK

1.- Ikuspuntu global horretatik abiatuz, lehen aldiz, problematika sektorial (eskola, helduen euskalduntze-alfabetatzea, unibertsitatea,...) kulturaletik (aldizkari eta literatur mundua, liburugintza, kultur eta kirol elkarteak, ...) kanpo, **herri mailako euskararen aldeko taldeak** sortzen dira, ordurarteko antolaketa motak gaindituz.

2.- Bestetik, talde hauek perspektiba nazional batez lan egin dezaten, nazio mailako antolaketa bultzatzen da, **euskararen gaia globaltasunean ikuspegi nazionaletik lantzeko erakundea** sortuz.

3.- Azkenik, eta bere elbakartasunaren eta erabileraren printzipioei eutsiz, **euskaldunez soilik osaturiko herri erakundea** sortzen da, **euskara hutsez funtzionatuko duen herri egitura**, garrantzia gehiago ematen baitzaio hizkuntz ezaugarri horri, ezaugarri horrek erakundeari bere hazkunderan jartzen dizkion mugei baino.

ERAKUNDEAREN IHARDUERA MOTAK

1.- Lehentasun osoa emango dio EHEk erreibindikazio eta salaketan oinarritutako **kale dinamikari, mobilizazio maila garrantzitsuak** garatuz, ikastolen inguruko ekitaldiak edota

AEKk sortutakoak osatuz. Kultur ekitaldiak eta zerbitzu eskaintzaren dinamika baztertzen ditu, beste elkarrekin eginiko kultur ekintzak onartu eta bultzatzen dituen arren. Hauek izan ziren hasierako nagusienak:

1979:

- Kontseilu Nagusiaren okupazioa.
- Nafarroako Diputazioaren okupazioa.
- Lehen atxiloteta errotulazio kanpaina.

1980:

- Udaletan elebitasunaren aldeko protestak
- Manifestazio handiak lau hiriburuetan.
- Okupazioen ondorioz, epaiketak
- Errotulazio kanpaina nazionala.

1981:

- Radio Nacional de Españaren okupazioa
- Euskal Telebistaren aldeko kanpaina.

2.- Ikusten den moduan, **salaketa-ekintza** izango da ihardueraren ardatza eta lan egiteko metodoa, askotan planifikazio handirik gabe bada ere, Hizkuntz Planifikazioaren garapena oso urria baitzen Euskal Herrian. Oso praktikoa. Dinamika honek emaitza onak izan zituen, baina EHBren irudia gogortu egin zuen.

3.- **Instituzioak eta alderdi politiko guztiak** izango dira salaketa dinamika horren helburu. Jokabide horrek instituzioen eta alderdien hizkuntz politikan eta praxian eragin handia izan zuen arren, hauen EHErekiko bazterketa dinamika eragin zuen.

4.- Bere iharduera lehen unean **administrazio eta telebista** alorretara zabalitzen du, ETBren inguruko lana eta Udaletako Euskara Batzordeena dira aipagarrienak.

ERAKUNDE BERRIEN SORRERA INDARTZEN

Larogeigarren hamarkada hasieran, EHEk ia hiru urtetako bi-dea egin ondoren, bi egitura berri sortzeko urratsak ematen ditu. Alde batetik, **euskal txokoen** beharra planteatzen du, euskaldunen elkarteen sorrera bultzatuz, hor daude 1981 eta 1982.ean sortutako **Donostiako Arrano Beltza Euskaltokia** eta **Iruñeko Zaldiko Maldiko**. Saioa egin zen Araban baina ez zuen arrakastarik izan. Eta bestalde, 1983.ean **Arrasate Euskaldun Dezagun** taldea sortzen dute, besteak beste, Arrasateko EHEko kideek.

Egitura berri hauen sorrera ez da kasualitatezkoa, hiru urtetako funtzionamenduaren ondoren EHE bera konturatzen hasia baitzen bere iharduera salatzaileak zuen eraginaz, baina baita sortzen zituen mugez ere. Garai hartan ezinbestekotzat jo zen herri nagusietatik abiatuz euskaldunon elkarteak sortzea eta indartzea. Asmo honek oso garapen mugatua izan zuen, besteak beste, gaur euskara elkarteek duten Txepetxen aporazio teoriko ideologikoa ez zegoelako eta euskararen inguruan mugitzen zen ezker abertzaleak beste azpiegitura lantzen ari zelako herrietan.

Bestetik, 1983.ean, EHEk parte zuzena hartzen du **Euskal Kulturaren Batzarraren** sorreran (EKB), EHEk ezinbestekotzat jo baitzuen euskalgintzan ziharduten egitura guztien koordinazioa lantzea. Aipagarria da, zentzu horretan, EHEk 1984.eko ekainaren 10ean «**EKBrako Euskal Herrian Euskaraz txostena II. zatia**» izeneko 45 orrialdeko txosten mar-dula. Besteak beste honako puntuak lantzen zituen:

- 1.- EHE taldearen sorrera eta ideologia:
 - Euskara, euskal kultura eta nazionaren arteko lotura.
 - Bi komunitateen arazoa.
- 2.- Institutuzioak, alderdiak, herri erakundeak...
- 3.- Norekin, nola eta zertarako kontatu behar dugun.

- 4.- Alderdi, sindikatu eta herri erakundeei eskakizuna.
- 5.- EKBko herri dinamika norik bideratu behar du.
- 6.- EKB organizatzeko eta dirua biltzeko bideak.
- 7.- Euskara eta euskal kulturaren defentsarako elkartea.
- 8.- Datorren urterako bi ekintza kaletar EKBren izenean.
- 9.- EHEren datorren urterako lan bereziak:
 - Udal mailako zinegotzi eta EHEren arteko lotura.
 - Euskaltokiak (Oraingo Euskara Elkarteen ildotik).
 - Berrestrukturaketa.

«Bigarren zati honetan, eta aurkibidean ikusi ahal izan duzue, beste gai batzu ikutzen sailatu gara, eta EKB-EHE eta Euskal Herrian dauden instituzio-alderdi eta euskararen inguruan dagoen mugimendua aztertzen sailatu gara, nondik nora, eta norekin lan egin behar dugun jakiteko. Bestalde EKBko estruktura organizatibo eta sozial bat eskaintzen dugu. Eta bukatzeko hiru ekintza proposatzen ditugu».

Azkenik, eta lehen garai hartako funtsezko beste txostena aipatu nahi dugu «*Euskal Herrian Euskaraz*» izenez 1985.aren apirilaren 12an plazaratua, bertan finkatu baitziren, EHEk urte horretan jasan zuen lehen krisi handiaren erdian aurrera begirako lan ildo, helburu nagusi eta funtzionamenduaren definizio berrituak.

Ondoren etorri zen pakto politikoez moteldurik zegoen EHE eta euskararen mugimendu herritarra gogor astindu eta berpiztu zuen Txepetxen «*Un futuro para nuestro pasado*» liburua. Eta baita tesi horri jarraiki Adorez eta Atseginez taldeak bultzaturiko Euskara Elkarteen *dinamika berria*, atzera begiratu gabe ulertu ezin daitekeena eta batez ere aurrera begira, iragana ukatu gabe, guztion arteko perspektiba eta dinamika berria bultzatu behar duena.

Denboraldi batez dinamika apala mantendu ondoren, 1989.ean, taldearen X. urteurrenean, **Udal Elebakarren** alde-

ko kanpainari ekin zion EHEk, Euskal Herriko Udal Euskaldunek euskaraz funtziona zezaten, elebitasuna alde batera utzita. Planteamendu honen ondorioz, lehen urtean 25 udalek hartu zuten euskaraz funtzionatzeko erabakia; eta, gaur, Udalok elkarren arteko lanak, arazoak eta abarrak bideratzeko, **«Udale-
rri Euskaldunen Mankomunitatea»** antolatu ondoren, hartutako bideari tinko eutsi diote, aurten Leitzan ospatutako Udale-
rri Euskaldunen egunean hiru alderdi politikok (EA, EAJ eta HB) ekimen hau bultzatzeko eta babesteko akordioa hartu dutelarik. Bede beretik, Instituzioen aldetiko onarpen maila batera ere iritxi da (hau pentsaezina zen EHEk ekimen hau plaza-
ratu zuenean).

Mugimendu honek garrantzi berezia hartzen du euskararen normalkuntza prozesuan, udal daministrazioaren alor guztietan euskaraz funtziona daitekeela frogatzen baitigu.

Bestalde, esperientzia hau oso interesgarria eta baliagarria da, bai gainerako instituzioei begira eta bai gizarte-esparru guztietan, normalkuntzaren bidean nondik jo behar den erakusten du eta (besteak beste inkonstituzionaltzat jo zen euskararen legearen 8. artikulua -lurraldetasuna- zioena biltzen du).

Lan handia dago egiteko, noski; zeren oraindik biztanlegoaren %80 euskalduna duten 100 herritik gora dago bide hau hartzeke, baina, apurka-apurka, UEMAkideen ereduari jarraiki beharrezko urratsak ematen hasiko direla espero dugu.

Guk, Euskal Herrian Euskarazek, 15. urteurrena ospatiko dugun urte honetan, aurrerantzean ere orain arteko bideari eusteko borondatea eta konpromezua hartzen dugu. Eta atzerantz begiratuz, 15 urteotako balantzea positiboa izan dela uste dugu, euskararen aldeko herri-mugimendua ikaragarri aberastu baita (EKB, Euskara Elkarreak, herri aldizkariak, UEMA, Euskaldunon Egunkaria...); baina, aldi berean eginkizun dagoen guztia ere agerian jartzen zaigu, batez ere azkenaldion euskararen etsai amorratuen eskutik kaleratu diren euskararen aurkako erasoak bitarteko.

Normalkuntzaren bidean aurrera egiteko, eraso horiek neutralizatu egin behar ditugu eta aldeko dinamika berpiztu. Hots, gizarte-presioa areagotu egin behar da. Eta horrek, herri-mugimenduen arteko adostasuna eta elkar-lana eskatzen du.

Bestalde, instituzioen aldetiko borondate politikoa (botere politikoa hizkuntz helburuen zerbitzuan jartzea... edo bestela esanda, politika euskararen ikuspegitik egitea eta ez interes politikoen araberako hizkuntza politika...) dugu eta Euskal Herri osoa hartuko duen Hizkuntz Politika bateratua, Eurokarta eta Killilea txostenaren izpirituari jarraiki (mugaz gaindiko instituzioak, legeria egokia...)

Hirugarrenik, instituzioen eta herri-mugimenduaren arteko adostasuna bideratu beharra, puntu minimo batzuetan oinarrituta, besterik ez bada ere, eta elkar-lana, bakoitzak bestea onartuz eta autonomia zainduz.

Eta hau guztiau, helburu bakarra begi bistan: Euskararen normalkuntza osoa; hau da, euskara Euskal Herriko lehen hizkuntz izatea.

Ondoren, hamabost urte lanean eman ondoren kaleratu nahi dugun Agiria:

«EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ»

ELKARTEAREN AGIRIA

*Behararen beharrak eraginda sortutakoa da **Euskal Herrian Euskaraz**, eta oraindik ere, zoritxarrez, behar horien gorria euskaltzale ororen begi-belarrietan dago. Sortu zenetik, 1979ko azaroaren 4 hartatik hona, ezin esango dugu euskararen egoera ezertan aldatu ez denik. Ezin esango dugu, ordea, euskararen zoria erabat bestelakoa denik gaur egun. eta nolakoa zen orduan? Elkartearen abiaburuko egoera honela isladatzen digu orduko Agiriak:*

«Euskaltzainok orain bi urte demokrazian eta indar abertzaleengan ipinitako itzaropena, disglosiaren egia gordinean amaitu da. Orain abertzale ez direnak ezezik alderdi abertzaleek ere, neurri

handi batean, euskara zokoratu eta marjinalu egiten dule. Gure alderdi eixekoetan, edota abertzaleetan, euskarak ez du aurkitzen benetako defentsarik.

*Desilusio garratz honen iturritik edandakoek sortu zuten, beraz, **Euskal Herrian Euskaraz**. Eta, aldeak alde, iturri horri oraindik ere ilusio adina desilusio dario: egia esateko, desilusioa nagusitzen zaio ilusioari. Izan ere, euskal gizartearen ispiluan gainbegirada xume bat bota orduko, erdal ekaitzaren hodei beltzak euskal ostarte belasken gainetik dabilta; haien etengabea gainjartze eta goilbeltasuna ezin alboratu ditu euskaldunak bere eguneroko hizkuntz jardunean.*

Hona, betaurrekorik gabe, ispiluan ageri zaigun erreinu hita:

Legetasun maila. *Itxurak eta formak gorabehera, euskararen eta gazteleraren ofizialtasun-izaerak erro-errotik bestelakoak dira. Erdararen ofizialtasuna materialki objektiboa den bezala, euskararena izaera subjektiboa oinarritzen da azken batean. Bestalde, frantseserarekin daukan estatus-aldea ordukoa eta betikoa da: ezerezaren erreinuan bizi da euskara Ipar Euskal Herrian. Lege-egoera dela eta, gure hizkuntzaren zatiketa hirukoitzak lurraldetasunik gabeko hizkuntzaren noraeza isladatzen du; are okerragoa da ordea maila honetako egituraren zapalkuntza, zatiketa hirukoitz hori Nafarroan bertan ere errepikatu egiten baita.*

Irakaskuntza. *Ongi agerian dago euskararen berreskurape-nak maila honetan urratu duela aurrerabiderik nabarmenena. Ofizialtasun-babes egokiagori esker Euskal Autonomi Elkarte-n nabari dira gehien aurrerapen zantzu horiek. Haatik, balorazio orokor baten harian, hazkuntza sistemaren oinarritzko zimentarriak oraindik ere eskolaume erdaldun-espainolizatuak sortarazten ditu ehuneko portzentaia beldurgarri batean: euskararen sustapen fasea Haur Hezkuntzaren mailakoa dugu, gaineroko maila guztiak erdal irakastereduen itsaso itogarrian murgildurik daudela. Hezkuntza egoerarik egokiena dagoen lekuan ere, ordea, Eskolaren hizkuntz eraginak ez du euskararen erabilera eskulaumeen mintza-jardunetan barneratzen: ikasteredurik euskaldunenak ere, beraz, ez du euskalduntzen haur-hiztunaren mintzabidea.*

Administrazioa. *Hemen ere Euskal Autonomi Elkarte nabarmen-mentzen da egin den apurrean. Lanpostuen berezko izaera-fun-*

tzioaren arabera euskara-eskakizuna egotzi zaie zenbait administrazio-atali. Eskakizunen garapenean hainbateko batek (adin jakin batiatik gora ez dago euskara jakin beharrik) euskara-gaitasun zehatz bat frogatu behar du horretarako prestatutako azterketen ildotik. Hizkuntz Dekretu honen ustela ordea, bere xede-helburuetan bertan dago: ez du deusetarako xedatzen euskararen erabilera administrazio-atal eta lanpostuen arteko hizkuntz hartu-emanetan. Irakas-kuntzaren eremuan somatu dugun oinarritzko arazoa daukagu aurrez aurre hortaz: funtzionari batzuek nola-halako hizkuntz perfila gainditu dutela frogatu beharko dute, gainerako guztia ezerezean deseginez. Euskararen nolabaiteko ezagutza gure hizkuntzaren normalizazio soziala dela sinestarazi nahi digute, eta hori gezurra da.

Gizare komunikabideak. Eusko Jaurlaritzaren egitekoa maila honetan EITB sortzea izan zen bere garaian. Horiek hor daude kontu ezin ahala erdal komunikabideen itsaso zabalean erdi-itorik. ETB2ren inguruko auzia, berriz, ezaguna dugu; euskal kulturaren zabalkunde-ardura omen zen berea erdaldungoarentzat, baina ekintzak berez mintzo dira; funtsaren funtsean, bigarren katea hori espainolizazio-tresna berri bat besterik ez da izan gaur arte. Gainerakoan, **Egunakria** ren argi-disdira itxaropentsua salbu, erdal ass medien itomena eramangaintza egiten zaio euskaraz bizi nahi duen orori.

Aipatu berri ditugun maila hauetan burututako hizkuntz politika horretaz gain, gainerako gizarte-esparru guztiak (lan-mundua, Osakidetza, Ertzantza, etab.) erdal hizkuntzen mendeko ditugu euskaldunok. Ideologia dominanteak besterik sinestarazi nahi badigu ere, euskararen zapalkuntza erabatekoa da nabardura batzuk gorabehera; zapalkuntza honen alderdirik tragikoenak Iparraldean agiri dira, non urte gutxiren buruan frantseak ordezkatu baitu betidanik izan duen hizkuntz eremua.

Guzti horregatik, eta hemen aipatzeko utzi ditugun beste hainbeste arrazoi dela bide, 1979ko **Agiriaren** izpirituari jarraitzen gataizkio haren iharduera-lerro nagusienetan. Beraz, puntu minimo hauetan oinarritzen da **Euskal Herrian Euskaraz** en hizkuntz burruka.

a) Elkartearen izaera berezia aldarrikatzaile edo burrukatzaile izango da. bere egitekoa ez da izango hortaz kulturaren edo

teknikaren munduan euskararen **corpus** plangintza taxutzea: egiteko hori besteren esku utzirik, bere jardueraren muina euskararen **normalizazio soziala** izango da. Bestela esanda: euskararen gizarte-erropena eta erabilera determinatzen duten mekanismoak euskalduntzea izango du goiburua nagusia.

b) Aldarrikapen eta hizkuntz burrukaren mamikuntza ekintzabide praktikoeetan gauzatuko da.


d) **Euskal Herrian Euskaraz** elkarteak erabateko autonomia izango du edozein idnar politikorekiko. Bertako kide izateko aski izango da puntu minimo hauekin bat etortzea.

e) Elkarte honen barne eta kanpo iharduerako hizkuntza bakarra euskara izango da.

f) Elebitasun sozialaren inguruko mito guztiak arbuiazen baiditugu ere, ez dugu balorazio bera egiten norbanakoaren hizkuntz egoeraz: zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobe guztiontzat. Halere, ohar garrantzitsu bat: hiztunaren lehen hizkuntza euskara izatea nahi dugu, bigarrena edo gainerakoak bere esku daudelarik. Elebitasun sozialaren iragankortasuna ongi gogoan izanik, trantsizioaldi moduan, euskararen ezarpen soziala dakarren gizarte-elebitasunik ez dugu oraingoz arbuiazen.

g) Elkarte honen ekintza-hedadura Euskal Herri osora zabalduko da. Hau da: Ipar eta Hego Euskal Herria.

**EUSKARARIK GABE,
EUSKAL HERRIRIK EZ.**



Euskal Herrian, 1994ko Azaroaren 4an

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Jon Orbezua